

# “Euskararen herria gero eta heterogeneoagoa da; ni gero eta baikorragoa”

Xabier Euzkitze | Bertsolari erretiratu

Aurkezpenik behar ez duen oso aurkezle aktiboa. Kalaka saioa gidatzen du asteazkenetan eta pilota-partidak asteburuetan.

FERMIN ETXEGOIEN

Argakia: Dani Blanco

**Susmoa dut *Sorginen laratza* aurkezten zenuenean aukerarik ñimiñoena baliatzen zenuela abesten hasteko.**

Hainbeste antzematen al zen? Kantatzea maite dut, bistan denez. Bizitza erdia plazaz plaza kantari pasatu dut.

**Kantagintza melodikoa, noski...**

*Sorginen laratza*-koaz ari bazara, bai. Hori da gehien gustatzen zaidan musika.

**Aizu, “bote” esaten baldin bada “punpa”... “rebote” da “repunpa”?**

“Bote” ez da “punpa” esaten, esan daiteke. Repunparena gidoigile barroko bati bakarrik burura lekiok.

**Telebistako txoritxoak txibatu dit ez zenuela bereziki maite *Wazemank*-en egin ohi zuten zure imitazioa...**

Txoritxo ez zen izango, *txorixoren* bat akaso. Ez du arrazoirik. Imitatzaile bikainak dira eta gurea ere primeran egiten zuten. Hori bai, gehiegi luzatu zutela uste dut.

**Nik ez dakit ezer bertsolaritzaz. Egia al da plazan agertzeari utzi behar izan zeniola Euskal Herriaren aurka zeundelako eta Espainiaren alde?**

Oso ongi dokumentatu zara, ez da dudarik. Gaztelaniaz kantatzeko urratsa eman nahi izan nuenean, galarazi egin zidaten. Horregatik erretiratu nintzen, gainerakoak txoro-kontuak dira.

**Esan didate sei urteko semea Mozarten pareko duzula bertsotan. Hasi zarete politikaz hitz egiten? Zaletasunez Amadeus bezain goiztiarra da, hori bai. Alde batetik poz hartzen dut, bestetik kezkatu egiten naiz. Ez dut nire zaletasun berak izatera kondenatu nahi, politika barne.**

**Euskaltzain urgazle ere bazaitugu. Horrek zer esan nahi duen asmatzeko, gutxienez urgazle izan beharra al dago?**

Urgazle ez naiz, Herri Literatura Batzordeko kide baizik. Hitzaren esanahia jakiteko, aski da hiztegi bat. Gure biltzarretan ikasten dena ikasteko bertara joan beharra dago. Gozatu egiten dut.

**Orain *Kalaka*-n bezala galdetuko dizut: “Euskararen herria gero eta trinkoagoa da... ala Gruyère gaztak baino zulo gehiago ditu”?**

Gruyère gazta zuloek bihurtzen dute hain berezi, haiek gabe ez litzateke Gruyère. Euskararen herria gero eta heterogeneoagoa da; ni gero eta baikorragoa.

**“Kalaka” hitza zabaltzea lortu duzue, behintzat...**

Hitza zabaltzea baino lorpen handiagoa da kalaka eragiten asmatu izana. Bukatzeko, azken kontsiderazio bat utziko?

**Prefosta!**

Elkarrizketa kabroi hau prestatu duena ez da deabruaren abokatua, abokatuaren bezeroa baizik. ■